

2003ko abendua

22. zenbakia

Aikor!

txorierriko aldizkaria



Txipli, txapla, pun!

Mikel Zarate - Aitor Gorosabel - Ekidazu abesbatza - Xabier Oleaga - Urkulu

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Arantzazu Mendiguren,
Bihotz Bakartien klubeko kidea.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Oihana Astobieta,
Lourdes Lasuen, Jasone Astola,
Asier Oruetebarria, Juan Luis
Goikoetxea, Arrekikili, Fernando
Urrutikoetxea, Atotz Goikoetxea,
Iñigo Gaztelu, Joseba Butron, Natxo
de Vicente, Behar Bidasoa Bizkaia
GKE, Koldo Peñafiel, Alaitz Ziordia,
Josu Orbe, Jon Ziarsolo, Saionara
eta Maripí, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Beñat
Aiartza.

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkariaren adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



9 Mikel Zarate




38 Txorierri ezagutu



10 Zerurena jatetxea



32 Ekidazu abesbatza



36 Xabier Oleaga



11 Aitor Gorosabel

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 9Mikel Zarate
10Zerurena jatetxea 11Gurean izan da Aitor Gorosabel
12Gazteen txokoa 13Txorierri Gabonetan 32Ekidazu
abesbatza 34Baserri mundua
35Teknologia 36Xabier Oleaga 38Txorierri ezagutu
39Txorierritarrak munduan 40Sukaldaritza 41Denbora pasa
42Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Hormak



Iñigo Gaztelu

Palestinako zonalde okupatueta armada israeldarra eraikitzen dabilen hormaren gainean ez dot aldeko eritzirik entzun. Alde guztietatik lotsabakokeriaren horma dala entzuten da eta ez dauela konponduko gaur egun dagoen gatazka politikoa. Baina horma guztiak ez dira harrizkoak, danak ezin dira ikutu.

E s p a i n i a r
Gobernuak erabaki eban horma handia eraikitzea Euskal Herrian. Zer da gertatu dana?

Txorierrin, ehundaka herritarrek ez daukie ordezkariarik udaletan. Herri plataformak ilegalizatuak izan ziran eta apartheid instituzionala martxan ipini zan. Hauteskundeak pasa eta 6 hilabetegarrenean Txorierrin EAJ, EA, PP eta PSOeko zinegotziak baino ez dagoz. Ez da islatzen eskualdeko errealitate soziala. Esaterako, gure herrian EAJk 640 boto lortu ebazan eta Larrabetzuarrok-ek 382 boto. Gaur egun EAJk 9 kontzejal daukaz. Hau da ba, demokrazia? Non dago 382 herritarren ordezkaritza? Udal honetan herriak erakutsitako legitimidadea hankamotz dago. Gure herrian

apartheidak lortu dauen gauza bakarra izan da herritarren arteko egonezina handitzea. Txorierrin ezker abertzalea lanean dabilela ikusten dot, kalean lanean jarraitzen dauela, sektore herritarren aurrean erreferentea dala. Kaletik ez gaitue botako. Ez dago legerik hau geldituko dauenik. Ezin dira legeak erabili herri baten nortasuna aldatzeko edo ukazioa egiteko. Ezker abertzalea herri honen parte aktiboa da. Zer egin ahal da udaletan?

Udaletan legezko formulak dagoz, zinegotzigoa (kontzejalia) herriak aukeratutako benetako jabeeri emoteko. Era honetako erabakiak lagunduko leukie herrian bizi dogun egonezina soluzionatzen. Gaur

egungo alkateak (Txorierrin danak EAJkoak) arazo hau zuzentzeko "giltza" daukie, gura badabe, bideak zabaldu ahal dabez herri plataformak kontzejal karguak eskuratzeko. Legeak, Espainiako lege-

ak, hau egiteko posibilitadea ematen dau. Espainako legean oinarritu dira herri plataformei kontzejalak kentzeko. Ordezkaritza benetako jabeeri emoteko ez bada ezer egiten, apartheid honegaz ados dagozela pentsatu beharko dogu eta egoera honetan eroso sentitzen dirala.

Udaletan ez ezik, oso garrantzitsua da honen moduko aldizkariak eta beste sektore batzuk be gogoan izatea eta ez ahaztutea bestelako errealitate politiko bat be badagoe-la. Hormak danon artean bota geinkez eta.

*“Udaletan legezko
formulak dagoz,
zinegotzigoa herriak
aukeratutako
benetako jabeeri
emoteko”*

Inetasia



*Joseba Butron
(Irakaslea)*

Ez dakit denborak gai transzendentalen ganean idazteko dagozan. Esan gura dot, ba, gai politikoak, edo telebisinotik ikusten doguzan gerra tristeak, edo euskerari egiten jakozan erasoen ganean idazteko. Hoba ez, irakurlea nahiko kantsauta dago horreekaz.

Horregaitik, ba, gaurkoan beste zeozer aitatutea otu jat. Lehengo baten nire ikasle izandako batek idatzi eustan. Antza danez, behin "inetasia" berbea dala-eta horren etimologiaz, hau da, hori berbaori nondik datorren zeozer azaldu nuen, eta ondino be gogoan eukan berak. Deskubrimentu handia izan zan berarentzat, antza.

Azaldu nuen eze "inetasia" berbean in zati hori oso zaharra zala, eta "zerua" esan gura zuela. Zati hori, "in", beste berba zahar batzutan be badago: inetasia (txingorra), inisitia (trumoia), inontza (garoa), inusturia (tximista), eta besteren baten. Gaurko gazte askok ez dakiez horreek berbok, ze ikastolan eta eskoletan askotan ez dira irakasten, liburuetan gitxitan agertzen dira-eta. Baina ona da gogoratzea eta jakitea. Eta erabiltzea.

"Zerua" berbea latinetik hartu zuen euskerak, caelum hitzetik. Hori baino lehenagokoa da ortzia. Eta zaharragoa in, jakina. Hurrengoan inetasia egiten daue-nean kontuan hartu berba zahar-zaharra dala, erromatarrek Euskal Herrira etorri baino askoz lehenagokoa. Itzela, ezta?

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Muhammad Yunus

Teleberrietan berri txarrak entzuteaz gogaituta gaude. Politikan gaizki, gizarte arazoak, ekonomikoki eskas hainbat jenderentzat, eskerrak Athletic ondo ari dela. Ez da berri onik ala? Ez da munduan jenderik, euren lan bikaina dela eta komunikabideetan atera behar dena? Bai, bada, eta ez dira gutxi gainera. Gaur dakarkizueguna halakoxea da, berri on-ona.

Joan den urriaren 31n, Euskalduna Jauregian, Bilbao Bizkaia Kutzaren eskutik Muhammad Yunus izan zen. Gizon hau "Pobreen Bankua", hau da Bangladesheko Grameen Bank izeneko bankuaren sortzailea da eta "pobreziari mikro-kredituen bidez eraso" izenburuko hitzaldia eman zuen. GKEetako jende ugari eta Bizkaiko enpresa arloko hainbat lagun izan gintuen entzule.

Yunus jaunak kontatu zuen 1976an, Indiako unibertsitate batean ekonomia irakasle zela, hausnarketa hau egin zuela, makroekonomiaz ematen zituen eskolek ez zutela batera eraginik mikroekonomian, eta bere herriko pertsona asko eta askoren bizitzan. Jendea zergatik zen hain pobre aztertu nahian hurbileko herrixka batera jo zuen. Herrixka hartan 42 lagunek zuten dirua eskatuta

eta guztira 35 dolar sor zituzten, baina ez ziren diru hori itzultzeko gai, interesa oso altua zelako eta beraien produkzioa mailegatzailari oso-oso merke saltzera behartuta zeudelako. Era horretara ezinezkoa zen pobrea izateari uztea.

Urte batzutan borrokatu ondoren, gobernuak pobreentzako bankua irekitzeko baimena eman zion. Banku horretan ez dute bermerik eskatzen eta bezero gehienak emakumezkoak dira.

Bezereen erdia pobreziaren mugatik gora atera da. Bankuak berak ez du hezkuntza plangintzarik, baina bezero gehien seme-alabak eskolara doaz, ez du osasun plangintzarik ere, baina bezero familiatan duten haurren hilkortasun tasa batez besteen erdia da, ez dute familia planifikazio plangintzarik ere, baina bezero familiek Indiako ohiko familiek baino seme alaba gutxiago dute.

Behar Bidasoa GKE-k Pereirako Garapen Gunean ezarri nahi duen mikrokreditu egitasmoa aurrera eramateko bultzada sendoa izan da hitzaldia. Izango duzue horren berri.

Hitzaldiaren hitzaurrean, BBK-ko Presidentea den Xabier de Iralak

gizarte ekintzaren alde egiten ari diren lana berretsi zuen, aurtan "BBK solidarioa"-k bere ibilbidea hasi duela esanez. Egitasmo hori pertsona asko eta askoren bizimodua hobetzeko izango delakoan bihoakie gure esker ona.

Behar Bidasoa Bizkaia GKE

Okerrak zuzendu:

Aurreko aldizkarian PTP-ri buruzko testua txarto argitaratu genuen. 24. orrialdean hurrengo testua agertu behar zen:

Lurra ondasun urria dela kontuan hartuta, inguru babestuak berrantolatetik kanpo utzi dira, lurraldearen azterketa egin ondoren. Inguru babestuok dira, esate baterako, Gorbeiaiko parke naturala eta Zierbenako padurak. Haranetako lurak ere babestuko lirateke printzipioz, baina "besteak ikutuezinak badira ere, azken horiek kolonizatze modukoak dira, hiria erakitzeke erraztenak baitira, bai eta, nekazaritzaren ikuspuntutik, aberatsenak ere", aipatu zuen Busturiak.

Txorierriko VII. euskararen eguna Zamudion

Azaroaren 29an, zapatuan, Txorierriko VII. euskararen eguna ospatu zuen Zamudion. Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Zamudioko Udalagaz eta herriko talde kulturalak batera, hainbat ekintza antolatu eban egun horretarako: kalejira, tailerrak eta Eriz magoaren ekitaldia, esate baterako. Horrezaz ganera, mahai-ingurua be izan zuen Zamudioko dorreko hitzaldi aretoan. Mahai inguruan Arlaneko Javier Segurak, Euskalteleko Miren Josu Uriartek, Labeineko Arantzazu Urzelaik eta Matriciko Iñaki Lejarzak hartu eban parte. Hizlariak euren enpresetan

zein dan euskararen egoera azaldu eutsien bertan bildu ziran 30 lagunei.

Era berean, pilotariak eta bertsolariak aritu ziran herriko frontoian arrastian. Gainera, azkeneko partiduan umeek botilero lana egin eban.

Jaialdiaren ondoren, Aikorlek Lurdes Lasuen Txorierriko Mankomunitateko euskara teknikariagaz berba egin dau. Bere ustez, parte hartze handiagoa eskatu beharko litzateke halako ekitaldietan, beste herrietako jende gitxi hurreratzen da-ta.

Beste alde batetik, Txorierriko eskole-tako umeek be euskara eguna ospatzeko aukera izan eban abenduaren 3an. Horretara, Zamudioko dorrearen inguruan eta polikiroldegi, eskola eta fronto-
tik 836 bat ume ibili ziran, bertan izandako ekintzetan parte hartzeko irri-
kan. “Ekintza batzuk ondo urten baziran be, beste batzuk, kometen tailerrak esate baterako, ez ziran atera guk itxaroten genduan bestean ondo”, esan deusku Lurdesek, “Aurten izandako akatsak kon-tuan hartuko doguz ez errepikatzeko hurrengoan”.



“Euskera senzilloaren manifestoa” Lezaman

Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak urteak eta urteak daramatzate euskara ikasten. Baina munduko euskaldun berririk zaharrenak izan arren, oraindik ez dute lortu euskaldun peto-petotak izatea. Zailtasunok alde batera utzita, euskarak erakartzen dituela aitortzen dute: “Euskaltegi-adiktoak gara, euskara-dependienteak, baldintzomano eta subjuntibopatak”. Izan ere, euskalduntze prozesuak ere “kalte kolateralak” dakartza.

Horrexegatik, eta euskara aldatzeko asmoz, Euskaltzaindia Berria sortu dute. Euren lehenengo fruitua Euskera senzilloaren manifestoa daukagu. Gazte zein nagusiei zuzendutako antzezlan honek arrakasta handia dauka euskaltegiko ikasleentzen artean. Lezamarrek Kultur aretoan ikusteko aukera izango dute urtarilaren 9an, arrastiko 7,30etan.



Txorierriko Korridorearen bigarren zatia inauguratuta

Txorierriko Korridorearen azkeneko zatia, Derio eta Erletxe lotzen dituen, abenduaren 1ean inauguratu zen. Inaugurazio ofiziala goizean egin bazen ere, errepidea ez zen osorik ireki gaueko 8:45etara arte.

Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldun Nagusiak azaldu zuenez, A-8ko funtzionamendua arindu arren, autobideak ez dio behin betiko konponbiderik emango Bilbo inguruko trafiko arazori. Hori dela eta,

Hegoaldeko Saihesbidearen proiektua aurreratu du Diputazioak urtea amaitu baino lehen. Halaber, Korridoreak Zamudioko Parke Teknologikorako irteera datorren urrirako prest izango dela aipatu zen.

Beste alde batetik, Korridorearen inaugurazioak lasaitasun apur bat ekarri die Txorierriko herriei, batez ere Zamudio eta Lezamari. Horrela, bada, egunero jasaten genituen auto-ilarak ia-ia desagertu egin dira.

Aikor!en jaialdia atzeratu egin da

Aurreko aldizkarian aipatu genuenez, Aikor!ek bere bigarren urteurrena abenduaren 18an ospatzeko asmoa zuen. Hala ere, Gabonak gainean ditugula eta askok hainbat konpromiso izango dutela kontuan hartuta, Aikor!ek jaialdia atzeratzea erabaki du. Horrela, urtarilaren 15ean, iluntzeko 8etan, izango dugu hitzordu berria Lezamako Txokoan, denok egongo garelakoan.

Padel kluba Derioko Seminarioan

Azaroaren 26an Padel klub berria inauguratu zen Derioko Seminarioan. Lokalak 4.000 metro karratu ditu, baita padelean aritzeko zazpi pista ere. Gainera, sauna, bainu turkiarra eta gimnasioa ere daude bertan.

Sondikako zahar etxea laster zabalduko da

Juan Maria Aburto Gizarte Ekintzako diputatuak azaldu duenez, Sondikako zahar etxea datorren urtean zabaltzeko asmoa dauka Bizkaiko Foru Aldundiak. Zahar egoitza 1.182 metro karratukoa da eta bertan 30 lagunentzako tokia izango da. Diputazioak 1,6 milioi euro jarri du proiektu horretarako.

Larrabetzuko saihesbidearen lanak apirilean hasiko dira

Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako hitzarmenaren arabera, Larrabetzuko saihesbidea egiteko lanak apirilean hasiko dira. Horretara, bada, 2005eko uztailan bukatuta egotea espero du Diputazioak.

Saihesbideak 2,2 kilometroko luzera izango du, baita 3,5 metroko galtzada bi norabide bakoitzean. Halaber, 1,5 metroko bazterbideak eraikiko dira.

Beste alde batetik, saihesbidea egiteko 17,3 hektareak desjabetzea beharrezkoa izango da. Lanetan 9, 48 milioi euro inbertituko dira.

Txorierriko XVIII. Gabon Kanten Jaialdia aurkeztu da Derion

Derioko Ipar-Alde abesbatzak Txorierriko Gabon Kanten Jaialdiaren XVIII. Edizioa aurkeztu zuen abenduaren 13an Udaletxeko batzar gelan. Bertan izan ziren, besteak beste, Lander Aiartza Derioko alkatea, Ramon Bustamante Herri Irratiaren ordezkaria eta Bizkaiko Abesbatzen Elkartearen, Txorierriko udalen eta abesbatzen ordezkariak.

Jose Luis Larrondo Derioko abesbatza-ren presidenteak azaldu zuenez, aurten zazpi kontzertu emango dira Txorierriko elizetan: abenduaren 19an, Zamudion; 20an, Loioan; 21ean, Sondikan; 26an, Larrabetzun; 27an, Lezaman, eta urtarrilaren 3an eta 4an Derion. Jaialdian, Bizkaiko 15 abesbatzak hartuko dute parte; kanta-riak 350 inguru izango dira.

Ramon Bustamantek taldearen lana goraipatu zuen, ahalegin handia egiten duelako Euskal Herriko gabon kanten ez ezik beste herrietakoak ere berreskuratu eta bizirik gordetzeko. Derioko alkateak, berriz, Ipar-Alde abesbatza herrian erreferente handia dela aitortu zuen eta lanean elkarrekin jarraitzeko gonbita egin zien, lan horren bidez Euskal Herriko eta kanpoko beste herriekiko harremanak zabaltu eta sendotzeko.

Azkenik, Jose Luis Larrondok hainbat talde, erakunde eta enpresari eskertu zien Gabon kanten jaialdia egiteko emandako laguntza. Beste alde batetik, Ipar-Alde abesbatzak abenduaren 19tik aurrera bere webgunea (<http://www.comunidades.kzguinea.net/ipar-alde.htm>) izango duela iragarri zuen.



Loiuko informatika gela berriro zabalik

Hilabete batzuk itxita egon ondoren, Loiuko informatika gela berriro irekiko da urtarriaren 7an. Informatika gela astelehenetik barikura bitartean egongo da zabalik, arrastiko 4,30etatik 8ak arte.

Animatzaile soziokulturala hartu du Larrabetzuko Udalak

Abenduaren 1az geroztik, Larrabetzuko Udalak beste zerbitzu bat eskaintzen du: animatzaile soziokulturala. Beronek hainbat ardura izango ditu bere kargu: herrian kultura zabaltzea, taldeak eta erakundeak koordinatzea, jaiak antolatzea, eta abar.

Gazte azoka Sondikako Gaztetxean

Abenduaren 20tik urtarriaren 11ra bitartean, Gazte azoka izango da Sondikako Gaztetxean. Bertan salgai jarriko dira, besteak beste, abenduan bildutako materiala, erabiltzen ez diren CDak, komikiak eta mahai-jokoak. Azokan lortzen den dirua Irunberriko Arangoiti ikastolari emango zaio.

Afrikara bidaltzeko material bilketa Lezaman

Azaroan, Behar Bidasoa GKE-k Afrikara joango den material ugari bidali zuen Irunera. Besteak beste, mediku kontsultarako materiala, bizikletak, etxerako tresnak, eskolarako materiala, arropa, zapatak, oihalak, josteko makinak, firuak, biberoiak, zapatagintzarako larrua, idazmakinak eta abar luzea. Hasieran material hori guztiori Kolonbiarako bazen ere, ezinezkoa izan da hara bidaltzea, hango Gobernuak jarri dituen eragozpenak eta trabak direla medio. Dena dela, Afrikan esku zabalik hartuko dute eta duten beharra ere ikaragarria denez, pozik gaude. Gure eskerrik beroena kamioia kargatzeko laguntzera etorri ziren lagun guztiei. Gabon sasoi hau elkartasun aroa izan ohi denez, jakin ezazue Behar Bidasoan beti gaituzuela atea zabalik. Zorionak eta urte barri on!

Mikel Zarateren omenaldia

Laster Mikel Zarateri omenaldia egingo dautso Lezamako herriak bere heriotzaren 25. urteurrenean. Hau dala eta, bere anaje Jon eta Ritxarregaz batu gara familiaren baserrian.

Baserri hau euren birraititak (Jose Antonio Lejarragak) erosi eban. Jatorrizko izena Usategibekoa zan arren, gaur egun Lejarrene izenagaz da ezaguna Lezaman.

Aztertu daigun omenaldia:

Urtarrilean hasikerea emongo jako omenaldiari Derioko Seminarioan, ze Mikelen bigarren etxea zan, Jonek eta Ritxarrek esan dauskuenez. Bertan sortu eben Mikelek-eta euskerearen alde hainbeste egin eta egiten dauan Labayru Institutua.

Lezamako Eskolako umeak Mikelen Umearen zentzuna, etxean entzuna ipuina antzeztuko dabe. Euskerarekiko zelako jarrera daukagun kritikatzan dau Mikelek hemen, Lezaman bertan ikusten ebana.

Kukubiltxok Mikelen Ekidazu obra antzeztuko dau Derion. Izen hori asmatu behar izan eban Mikelek Euskadi berbea debekatuta egoalako.

Lauron bazkaria eta bertsolariak daukiez, bertako baseleizan eman ebalako Mikelek meza sei urtean. Baina lehenago Mallabiko Gereaa auzoko abadea izan zan, eta anajeen esanetan, hantxe euskaltzale-tu zan guztiz.

Musika ekitaldiak be badaukie euren pisua omenaldian (Mikel musikazale handia izan zan, eta solfeo ikasketak egin

ebazan): Zamudioko Bertokok, Larrabetzuko Musika Eskolak, Ekidazu Abesbatzak eta abarrek beren emonaldiak eskainiko dauskuez.


Mahai inguruak be izango doguz Kultur Aretoan, eta Mikel pertsona moduan eta idazle moduan ezagutu eben pertsonak parte hartuko dabe bertan.

Gainera, Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra egingo dau Udaletzeko Batzar Aretoan. Mikel euskaltzaina zala, euskera batua eta bizkaiera elkar osatzeko ahalegin handiak egin ebazan.

Esku pelotak be bere lekua eukiko dau, Mikel pelotazale amorratua izan zan eta.

Amaitzeko, Mikel abadea zalako, Bizkaiko Gotzainak meza emongo dau Lezaman. Eta herri gizona eta bertsozalea zala gogoratzeko, frontoian bazkari eder bategaz eta bertsolari onenakaz amaierea emongo dautsogu omenaldiari.

*Testua: Fernando Urrutikoetxea
Argazkia: Itxaso Marina*



Jon Zarate eta Ritxar Zarate, Mikelen anajeak

“Jatetxea baino, txokoa da gurea bezeroen ustez”

Bapo jateaz gain, eskaintza kulturala zabala ere badago Sondikako Zerurena jatetxean. Horrela, bada, 2000. urteko Santo Tomás egunean zabaltu zenetik hainbat hitzaldi eta erakusketa izan dira bertan. Javi eta Iñaki Oruetxebarria anaiek ekimen hauen berri eman digute.

Hasiera-hasieratik, bazkaldu eta afaldu ez ezik erakusketetan eta hitzaldietan parte hartzeko aukera ere eman diezue bezeroei...

Bai, jatetxea inauguratu genuenetik hamabostero aste kulturalak antolatzen genituen. Gaur egun, berriz, hilean behin edo egiten ditugu. Horrela, hainbat gai jorratu ditugu gurean: txarriboda, Gorbeaiako gurutzeta, Eusko labela, euskal sukaldaritza, euskal idazleak... Halaber, Natxo de Vicenteren margoak ere izan ditugu ikusgai.

Beste alde batetik, urtean zehar dau-den jaiei ere jarraitu eta Inauteriei buruzko erakusketak eta hitzaldiak izan ditugu, euskal gabonei buruzkoak ere bai... Gainera, euskararen inguruko jaiak daudenean, Ibilaldia edo Korrika esaterako, euskarari buruzko asteak ere prestatzen ditugu.

Eta nork izan zuen ideia?

Santutxuko batzokian lan egiten genuen lehen eta konturatu ginen ekintza kulturalak antolatzea ona zela negoziariko, baita guretzat ere. Ostalaritzan aritu arren, ni (Iñaki) kazetaria naiz eta Javik nekazaritza-ikasketak burutu ditu. Horregatik, bada, kultura arloko hainbat gai zabaltzeko interesa daukagu. Gure ustez, jatetxea leku aproposa da hori egiteko eta bezeroek ondo hartzen dituzte iniziatiba guztiak. Egia esan, jorratzen ditugun gai asko eurek proposatzen dituzte.

Bezeroak pozik, orduan...

Gehienek Sondikako enpresetan lan egiten dute eta nahiko estresatuta etor-tzen dira bazkaltzera. Guk esaten diegu



Duela gutxi Javier Quevedo izan dugu Zerurena jatetxean

—“Aizue, egon lasai eta gozatu bazkari-az”. —“Non duzue egunkaria?”- galdetzen du baten batek. —“Egunkaria? Zertarako? Hartu liburu bat eta lasaitu, egunkaria etxean irakurriko duzu eta!”- erantzun geuk. Bezeroek elkarrizketarako jarrera baikorra izatea gura dugu. Presaka ibiliz gero, nahiago dugu beste leku batera joa-tea. Jatetxera etorritzen direnek elkar eza-gutu eta euren artean elkarrizketa sortzen da askotan. Jatetxea baino, Zerurena txo-koa dela diote askok. Ederra!

Zein gai aukeratuta duzue hurrengo hilabeterako?

Gabonetan Bitoriano Gandiagari buruzko hitzaldia eman nahi dugu, *Gabon dut anuntzio* liburua idatzi zuenez egun horietan, jorratzeko egokia delakoan bai-kaude. Era berean, Hezkuntzaren egoera lantzeko asmoa ere badaukagu. Horretarako, Txorierriko eskoletako irakas-leekin harremanetan jarriko gara.

Testua: Itxaso Marina
Argazkia: Natxo de Vicente

Jarraipena izango duten hitzaldiak

Bazkaldu ostean solasean izaten dira askotan Zerurena jatetxekoak. Tertulia horietan hainbat idazle eta adituk ere parte hartzen dute, gehiago jakiteko gogoia entzuleengan piztuz.

Javier Quevedo izan duzue azkena, ezta?

Bai. Gortizeko alkate ohia izateaz gainera, bere Urdaibaiko kobei buruzko teoria eta ikerketengatik da ospetsua. Bere iritziz, Historiaurreko Pirineotako jendeak nahiko jakinduri aurreraturata zeukan. Gainera, eguzki-sisteman planeta bat falta dela ohartu zen aspaldian. NASARA deitu eta ez zioten kasurik egin. Orain dela urte gutxi NASAkoek honen berri eman zuten... Bere teoria guztiak matematikoki frogatu eta gure artean zeuden adituek, Peio Zabala eta Edorta Romanek kasu, ez zioten ezta hitz bat ere ihardetsi.

Duda barik, horixe izan da jakin-min gehia-go sortu duen hitzaldia, 6 ordu baino gehiago solasean eman genuen eta. Hori dela eta, bigarren zatia egitea pentsatu dugu. Zapatu batean autobusa hartu eta Arantzazuko Santutegira joango gara. Bazkaldu eta gero gaiaren inguruan hitz egiten jarraituko dugu.

Eta Jorge Oteizak ere esanbidea emango dizue...

Duela gutxi Elias Amezaga idazlea egon da gurean Jorge Oteizari buruzko hitzaldia ematen. Gai horri dagokionez, bigarren zatia ere egin nahi dugu. Jakingo duzue-nez, Oteiza fundazioa sortu dute Nafarroan, baina bere lana baino ez da erakusten bertan; artistaren pentsamen-dua fundaziotik kanpo utzi dute. Horrexegatik, fundazioaren kontra dauden batzuekin hitz egin nahi dugu, euren arra-zoiak azaltzeko.

Aitor Gorosabel, Su Ta Gar taldeko abeslaria

"Azken diskoa injustizia guztien kontrako aldarrikapena da"

Zamudioko jaietan kontzertu itzela eskaini zuen Su Ta Gar taldeak. Eguraldia ez genuen lagun, baina Eibarrekoek adore guztia jarri zuten eszenatoki gainean. Kontzertua baino lehen, Aikor!rek Aitor Gorosabalekin hitz egiteko aukera izan zuen.


Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Koldo Peñafiel

Itsasoz beteriko mugetan Su Ta Garren azken lana dugu. Zelan grabazioa?

Berrizeko Loretxo Rekords-en grabatu genuen otsailean eta martxoan. 2001. urtean zuzeneko diskoa kaleratu arren, *Homo Sapiens?* azken estudioko lana 1999. urtearen amaieran atera genuen. Beraz, hiru urte pasa eta beste estudioko disko bat egiteko garaia zela pentsatzen genuen. *Itsasoz beteriko mugetan* nahiko landutako diskoa da. Oso pozik gaude bai soinuarekin, bai kantuekin...

Beti zu gabe abestia singletzat hartu duzue. Zergatik?

Aurreko diskoetan geuk aukeratu genituen singleak, baina azken honetan zaila suertatzen zitzaigun erabakia hartzea eta diskoetxekoei eman genien ardura. Eurek *Beti zu gabe* aukeratu eta gu ados.



Su Ta Gar taldeak 15 urte daramatza eszenatoki gainean.

"Ibarretxeri proetarra esaten badiote... Zer izango gara geu, ba?"

Lehen aipatu duzunez, zuzeneko diskoa kaleratu zenuten 2001. urtean. Su Ta Garrek etapa bat itxi zuen lan horrekin?

Talde askorentzat horrela izaten da, baina gure kasuan ez. Ezbeharrak zirela eta, ez genuen zuzeneko diskoa grabatzeko unerik topatzen... Zazpi lan merkatuan izanda, momentu egokia zela pentsatu genuen, beste barik.

Errebindikazio-diskoak dira zuenak. Zer dago salatzeko azken lan honetan?

Etorkinen arazoa, Iraken aurkako guda, Euskal Herria pairatzen ari den une latza... Disko hau injustizia guztien kontrako aldarrikapena da.


Eta zelan doaz salmentak?

Ba, egia esan, besteak baino gutxiago saltzen ari da. Dena dela, 10.000 disko saldu ditugu eta apurka-apurka egoera hobetzea espero dugu. Gainera, nahiko kontzertu onak ematen ari gara eta jendetza biltzen da...

Birari dagokionez, zeintzuk dira zuen planak?

Ez daukagu bira zehatzik. Atera ahala ematen ditugu kontzertuak. Hala ere, egun pairatzen dugun euskal kulturaren kontrako eraso asko kaltetzen ari zaigu. Beno, pixkanaka-pixkanaka irteten ari dira kontzertuak...

Ildo horretan, SA, Muguruza eta zuen aurkako kanpaina itzela zabaldu da. Zer pentsatzen duzue horren inguruan?



Kontu horri ez diogu publizitate handirik eman nahi. Egia da nahiko izorratuta gaudela eta kontzertuak ez ezik dirua ere galtzen ari garela, baina ez da soilik gure aurkako kanpaina. Azken batean, Ibarretxeri "proetarra" esaten badiote... Zer izango gara geu, ba?

Jo Ta Ke legeaz kanpoko abestia izango da inoiz?

Asociación Víctimas del Terrorismok horrela eskatu zuen, baina guk ez dugu horri buruzko berririk jaso. Lehenengo eta behin frogatu beharko dute SA, Fermin eta gure abestietan terrorismoaren aldeko apologia egiten dela. Gu adi gaude badaezpada... Dena dela, gu beldurtzeko edota jendarteko iritzia gure kontra jartzeko azpijokoa izan daitekeela pentsatzen dugu. Ez dakit zer gerta daitekeen... Ez dakit abesti bat debeka daitekeen...

Teknologia berrien garaian ere euskaraz bizi ahal da?

Aurreko egun batean, ezpainetan irribarretxo bat sortu zitzaidan albiste bat entzun nuenean. Albiste horrek honelako zerbait zioen: “Informatika erabiltzaileen %80k noizbait ordenagailuarekin hitz egiten du eta %47k ordenagailua jipoi-tu egin du”. Jipoiena salagarria izan arren, bereziki bermea galtzekotan egongo garelako; niri, momentu hartan, hitz egitearenak eman zidan zer pentsatu. Eta pentsatzen hasiz gero galderak etorri zitzaizkidan burura: nola hitz egingo dio erabiltzaileak ordenagailuari? Zer hizkuntzatan? Aitortu egin behar dut, naiz eta inkesta horretan ez parte hartu, ni ere ehuneko horren barruan nagoela. Bai, aitortzen dut, nik ere ordenagailuarekin hitz egiten dut. Eta hitz egiten diodanean, nola egiten diot?

Ba gertatzen da ni euskalduna naizela eta beraz, EUSTATen arabera, gutxienez elebiduna izan behar dudala eta orduan, pertsonekin gertatzen den moduan, ordenagailuarekin ere “giroaren” arabera hizkuntza aukeratzen dudala.


Asuntoa da, ordenagailuarekin lanean abiltzanean “giro” hori pantailak berak zehazten dizula, eta goialdean “Fichero-Editar-Ver...” ikusten badugu ba ordenagailuari gazteleraz hitz egiten diogu. Hau da, astiro doanean, “vamos, vamos...” esaten diogu edo pantaila urdin famatuak agertzen direnean “mecagüen la ...” botatzen diogu bat-batean (eta erdiak gutxi gorabehera orduan jipoia ematen dio).

Gainera ingeles apur bat ere dakidanez eta frantsesez dagoen programa bat ere erabiltzen dudanez ba azkenean ez dakit nola hitz egin berarekin. Askotan goialdean “File-Edit-View...” ikusten dudanean kirole-tako “come on, come on...” esaten diot eta badirudi sistema azkarrago doala. Baina dena dela giro kuttunenik kuttunena goialdean “Fichier-Edition-Affichage...” ikusten dudanean suertatzen da. Ez dakit zer duten frantsesek baina kasu horretan giroa oso maitagarria bilakatzen da eta orduan ez dago hitz gogorrik; leun leun esaten diot “allez, allez, mon amour...”.

Arazoa euskaldunontzat zera da. XXI. mendeko mundu globalizatu eta teknifikatu honetan euskaraz ere bizi nahi badugu, nola euskaldundu informatika giroa? Posible al da? Pantailaren goialdean “Fitxategia-Editatu-Ikusi...” ikustea eta noizbehinka “aurreratxikitxo” edo “oso ondo portatu zara gaur” esatea posibleak al dira?

Informatika giroa euskalduntzeko euskarazko programak ezinbestekoak dira eta erabiltzaileon beharrianak asetzeko, sistema eragilea, bulegotikako programak, oso garrantzitsua den antibirusa eta dagoeneko derrigorrezkoak diren interneteko nabigatzailea eta posta elektronikorako programa behar ditugu.

Ba programa horien euskarako bertsioa egon badago eta lan apur batekin aurki ditzakegu. Jabegodun softwarea (Microsoft, Panda) era legal batean lortu nahi izanez gero, informatika denda batera jo beharko dugu. Baina software askeko programak sarean aurki ditzakezu eta gainera doan. Horretarako bi esteka gomendatu nahi dizkizut www.euskadi.net/euskara_soft eta www.ueu.org/softkat. Esteka horietan aurkituko duzu euskarazko softwareari buruzko informazio osoa.



Beraz, badago informatika giroa euskalduntzeko aukera. Orain erabiltzaileoi dagokigu euskarazko softwarea erabiltzea, pantailara begiratu eta goxoki esatea “Beno txikitxo, amaitu du, orain gorde iezadazu mesedez fitxategi hau disko gogorrean eta bukatzen duzunean, eragozpen handirik ez bada zuretzat, bidali inprimagailura zuzenketak egin behar ditut eta.”

Testua: Josu Orbe Benguria
(P. I Txorierri s. Coop.

Urtearen azken orbela

Gori-gori dauka ikatza Olentzerok honezkero, lautadara so asto behargina. Gabonak zeruertzean, 2004garren urtea orpoetan.

Euskaldunok pertsonaia mitologiko honen sabelaren okerdura oparoa dogu Gabonen ikur. Intxaur-saltsaren epeltasunera konbidatuko doguz aurten be olio-azak, makailoa, karakolak, okela mota guztiak, besegua edota bere oskoldun lehengusu-lehengusinak. Azukreak be, azpijokoz itxura desberdinak hartu, eta errez egingo dau zintzurrez beherako bidea. Eta bazkaltiarren zoriona ureztatze-ko, cava gura beste. Noeren Arka urin pankreatikoaren zurrunbiloan.

"Ohitura, bigarren izaera" dino esaera zaharrak. Atsotitzaren egiaz baliatuz, esan



daikegu zenbat ohitura hainbeste herri dagoala munduan. Eta guk, ezagutzen ete doguz Norvegia, Australia, Italia edo Japonia moduko herrialdeen Gabonetako usadioak? Hamen bitxikeria batzuk.

Norwegian, abenduaren 13an egiten dabe Gabonetako lehenengo afari berezia, baina etxeko animaliek bakarrik! Ugazabek 24ra arte itxaron behar dabe, ezinbestez.

Australian, eguzkia bete-betea, eta 25-38 gradura bitarteko tenperatura izaten dabe. Bertara moldatuz, Antipodetako Santa Clausek tirantedun kamiseta, fraka laburrak eta kapela daroaz soinean.

Italian, Gabonetan be ez dabe pasta albo batera izten, eta menuan ez da sekula falta. Gabonzahar gauean, mahatsaren ordezkariak jaten dabez. Erromako eta Napoliko herritarrek, traste zaharrak leihotik behera bota ohi dabez, iragan amaituaren sinbolo modura.

Azkenik, egin dagigun hegaz Japoniara. Abenduaren 31n zoroen pare hasten dira etxeko garbi-ikuzia egiten, azkeneko hauts izpia deuseztu arte. Gero, familia osoagaz batera, fideo-katilukadak jateko usadioa dabe, bizitza luzearen sinbolo legez.

Hurbiltasunagaitik nahiko ezagun jakuz ingeleseko "Merry Christmas and Happy New Year" edo frantseseko "Joyeux Noël et Bonne Année". Baina hara ohar bat: jatorkuzan jaietan Japoniara zoazienoi,



han "Shinnen omedeto. Kurisumasu omedeto" esaten dabela jakitea komeni jatzue. Oin Beltzak indioek, barriz, "l'taamohkatoyiiksistsi" esanez agurtuko dabe 365 egunez guztion etxeetan sartzen ausartu dan urtea.

Eta txorieritarrok zein gidoi asmatuko dogu idaztear dagoan egutegi zaharturako? Senak, edo akaso urte luzez baitaratutako memoriak dakarst gogora, kale zaratatsuetako argitasun artifiziala, isiltasunez jantzitako berdetasun umela, Txorierriko tximiniak kea dariola, eta, hormen atzean, egun beraren milaka kontaera.

Zorionak eta urte barri on!

Testua: Atotz Goikoetxea

Nor da Olentzero?



5 urte (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Gizona da. Menditik dator. Opariak ekartzen ditu. Altua, zaharra eta potoloa da. Tripa eta buru handiak ditu. Beltzarana da eta bizarra dauka. Txapela beltza eta pipa dauzka.



5 urte (Larrabetzuko Herri Ikastetxea)

Bizarduna eta potoloa da. Txapela eta pipa dauzka. Egurrezko etxe batean bizi da mendian. Menditik dena ikusten du katalajo batekin. Gazez joaten da dendetara eta erosten ditu opariak. Gero asto gainean ekartzen ditu. Teilatutik, tximiniatik eta leihotik sartzen da etxeetara, oso eskailera luzea dauka.



1. maila (Larrabetzuko Herri Ikastetxea)

Oso ona eta majoa da. Bizar zuria, zaku eta pipa dauzka, abarkak, larruzko arropa, txapela eta makila ere bai. Bizkargi mendian bizi da eta ikatza eta opariak egiten ditu. Astoak tiratutako gurdian ekartzen ditu opariak... Noizean behin traktorez ere etorri da herrira. Magia duenez etxeetara sartzen da.



1. maila (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Gazez opariak ekartzen dituen. Olentzero potoloa eta zaharra da, triponztzia eta buruhandia ere bai. Bizarduna da. Txapela, pipa eta zaku bat dauzka, baita astoa ere...

Zer eskatuko diozue Olentzerori?



4 eta 5 urte (Zamudioko Herri Ikastetxea)

Barbie panpina, pilota bat, Baby Born panpinaren sehaska eta karroa, Lince izeneko mahai-jokoa, kotxe bat, Doraemon filma eta kamioi bat.



5 urte (Lezamako Herri Ikastetxea)

Ezpata bat, Hulken eskuak, kotxe bat, palomita egiteko makina, Barbie panpina eta haren familia, koadernoak, margoak, Merlinen gaztelua, autoak eta garajea, Branz panpina, kotxe telegidatua, etxe bat familiarekin, txiza egiten duen txakurra, garabi bat eta Play Station bat.



3. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Auto telegidatua, panpinak eramateko karro bat, ordenadore bat, izozkiak egiteko makina, musika entzuteko disc-man bat, eskumuturrekoak egiteko bolatxoak, Play Station II, futbol-set, karaoke bat, Game Boy Advance SP Pokemon Rubi jokoarekin, hegazkin telegidatua...



1 eta 2. maila (Zamudioko Herri Ikastetxea)

Gaztelu bat, itsasontzi bi, Spidermanen motokrosa, dragoi bat, Baby Born panpina, gitarra bat, arropa, botak, trikita, moto bat, El Señor de los Anillos jokia, Hulk panpina eta filma, ipuinak, jokoak, induskailu bat, tren bat, papera egiteko makina bat, filmak, errotuladoreak eta eskolarako taula berria.



5 urte (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Lepokoak eta eskuturrekoak egiteko gauzak, Play Station, benetako txakurra, scalextric eta auto telegidatuak, Barbie panpinaren karroa, izozkiak egiteko makina, Barbie panpinaren txakurra, pirata-ontzia, moto telegidatua, ipuin kontalaria, Digimon jokia eta karrerak egiteko autoa.



5 urte (Derioko Herri Ikastetxea)

Induskailu bat, kamioi bat, Action man txinatarra, Baby Born panpinaren armairua eta aulkia, Hulk-en eskuak, laser espata urdina, tren bat, Spidermanen eskuak, laser ezpata berdea, action 4x4 bat...



6. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

DVD-bideo batzuk, Play Station, jokoak eta baloia, miniaturak margotzeko, mahai-joko bat, temperak, mikroskopio bat, diskoak, Play Station II, musika entzuteko disc-man bat, scalextric bat, auto telegidatua, ordenadorerako joko bat...

Zergatik gustatzen zaizkizue Gabonak?



4. maila (Lezamako Herri Ikastetxea)

Oporrak hasten direlako, opariak jasotzen ditugulako, elurrarekin jolasteko aukera daukagulako, familiarekin bazkaldu eta afaltzen dugulako, PINera joaten garelako, abenduaren 31n urte berria ospatzen dugulako eta Olentzero eta Errege Magoak etortzen direlako.



1. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Olentzero eta Errege Magoak etorri eta opariak ekartzen dizkigutelako, Olentzero abestia kantatzen dugulako, kalean argiak daudelako, Gabonetako arbola ipintzen dugulako, festak daudelako, kabalgatak egiten ditugulako eta mahatsa jaten dugulako.



3. maila (Larrabetzuko Herri Ikastetxea)

Opari asko izaten ditugulako eta amamaren etxera joaten garelako afaltzera. Olentzero etortzen delako, elurra dagoelako, 15 eguneko oporrak ditugulako, lo egiten dugulako, janari gozoa, polboroiak, pastelak, eta turroia jaten ditugulako.



5. maila (Lezamako Herri Ikastetxea)

Olentzero eta Errege Magoak etortzen direlako, familia osoa elkartzen delako, turroia eta janari gozoa jaten dugulako, oporrak ditugulako, opariak jasotzen ditugulako, jolasteko astia dugulako, trankil ibiltzen garelako...



6. maila (Lezamako Herri Ikastetxea)

Opariak jasotzen ditugulako, eskiatzera joateko aukera dugulako, janari gozoa bazkaldu eta afaltzen dugulako, familia osoa elkartzen delako, elurrarekin jolasteko aukera dugulako eta gure urtebetetzea (Aitor eta Julen) delako.



2. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Oporrak ditugulako, Olentzero eta Errege Magoek opariak ekartzen dizkigutela, herrira joaten garela, jolasteko astia dugulako, jaiotza ipintzen dugulako, jai-giroa gustatzen zaigulako eta bolanderak jaurtitzen ditugulako.



5 urte (Derioko Herri Ikastetxea)

Olentzero eta Errege Magoak etorri eta opariak ekartzen dizkigutela, kabalgatetara joaten garela, familiarekin egoten garela...



5. urratsa (Derioko Herri Ikastetxea)

Olentzero etorri eta opariak ekartzen dizkigulako, familiarekin egon, jolatu eta bazkaltzen dugulako, afaldu ere bai. Eskolarik ez dagoelako, musika jarri eta dantzatzen dugulako, turroia eta bizkotxoak jaten ditugulako, ondo pasatzen dugulako, Jesusen jaiotza ospatzen dugulako, etxea apaintzen dugulako, herrira joaten garela eta elurrarekin jolasteko aukera daukagulako.



6. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Politak direlako, oporrak ditugulako, familiarekin izaten garela, lagunekin egoteko denbora gehiago dugulako, ez daukagulako egunero etxerako lanik, opariak jasotzen ditugulako, mahatsa jaten dugulako eta Urte Berria ospatzen dugulako.



6. urratsa (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Jaia daukagulako, opariak jasotzen ditugulako, jai-giroa gustatzen zaigulako, janari gozoa jaten dugulako, elurretara joateko aukera daukagulako, lagunekin denbora gehiago egon ahal izaten garela, lo gehiago egiten dugulako, etxea apaintzen dugulako eta Gabon Zahar egunean jai handia egiten dugulako.

Zer egiten duzue klasetik kanpo Gabonetan?



3. maila (Lezamako Herri Ikastetxea)

Olentzero egunean oso goiz altxatu opariak ikusteko, herrira joan, etxeko guztiak batu eta elkarrekin afaldu, berandu oheratu, Gabonetako abestiak kantatu, festak, ailtita-amamen etxera joan, lehengusuekin jolastu, elurretara joan, elurrezko panpinak egin, mahatsak jan, bolanderak eta petardoak bota, kabalgatatak ikusi, zalditegi batera joan, elurrezko gudak egin...



4. maila (Zamudioko Herri Ikastetxea)

Gabonetako gauzak jarri etxean, Olentzerorekin kalejira egin eta honek liburuak eta karameluak ematen dizkigu. Senitartekoen etxera joan, familiarekin afaldu, opariak ireki, telebista ikusi, herrira joan, jolastu, Gabon Zaharrean petardoak bota, mahatsa jan, berandu oheratu eta hurrengo egunean berandu altxatu ohetik, mozorrotu...



6. maila (Zamudioko Herri Ikastetxea)

Etetik kanpo ibili, patinatza joan Gasteizera, zinemara eta PINera joan, Olentzerorekin kalejira egin, familiarekin afaldu, kartetan eta bingoan jokatu, herrira joan, Gabonetako arbola eta jaiotza ipini, bolanderak eta petardoak jaurti, mahatsa jan, bonba kirasdunak bota...



2. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Lo egin, Olentzerok ekarritako jostailuekin jolastu, telebista ikusi, zinemara joan, futbolekin aritu, plazara joan, esku pilotan aritu, filmak ikusi, oporretan egon, kabalgatetara eta PINera joan...



5. maila (Zamudioko Herri Ikastetxea)

Dantzatu, jolastu, opariak jaso, baserritar eta dantzari jantziak ipini, merienda handiak, txokoladak, bertsoak bota, familiarekin afaldu, trikita eta panderoa jo, petardoak eta serpentinak bota, telebista ikusi, mahatsa jan, kartetan eta bingoan jokatu.



3. maila (Zamudioko Herri Ikastetxea)

Zinemara joan, etxea apaindu eta Gabonetako arbola eta jaiotza ipini, etxean egon, herrira joan, Olentzerori postala bidali, opariak jaso, senideen etxeetara joan, familia etxera etorri eta denok batera afaldu.

Ezagutzen duzue Gabonetako abestirik?



3. maila (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Olentzero, Din-dan-don, Alaken, Kanta aleluia, Hator, hator, Olentzero begi gorri eta Elurra teilatuan.



5. maila (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Hator, hator, Din-dan-don, Olentzero, Alaken, Izar argi, Olentzero begi gorri, Kanta aleluia, Elurra teilatuan...



2. maila (Larrabetzuko Herri Ikastetxea)

Olentzero, Din dan don, Alaken, Hator hator, Elurra teilatuan, Gabon gaua...

Zer jartzen duzue ikasgela apaintzeko Gabonetan?



1. maila (Lezamako Herri Ikastetxea)

Kanpaiak, Gabonetako arbola, izarrak, bolak, zintak, kandelak, koroak, margotutako galtzerdiak, opariak, Olentzero, Errege Magoak, jaiotza, txirikordak, elurrezko panpinak, aingeruak...



4. maila (Larrabetzuko Herri Ikastetxea)

Kanpaiak, bolak, izarrak, txirikordak, muralak... Gabonetako arbola marraztu eta leihoetan ipintzen dugu. "Zorionak" hitzaren hizkiak idatzi eta margotu eta kristaletan ipintzen ditugu. Olentzero ikastetxeko sarreran jartzen dugu.



1. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Zuhaitz txikiak, bolak, espumiloia, Olentzero eta Jaiotza, kanpaiak, marrazkiak, koroak...



4. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Paperez eta kartoi mehez geuk egindako Gabonetako gauzak: bolak, izarrak, Gabonetako arbolak, elurrezko panpinak, Olentzero, jaiotza...

Zer egiten duzue klasean Gabonetan?



2. maila (Lezamako Herri Ikastetxea)

Ikasgela apaindu, antzerkia, Gabonetako marrazkiak egin, Olentzerori gutuna idatzi, turroizko izozkiak egin eta Olentzero, Gabonetako arbola eta jaiotza ipini.



2. maila (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Klasea apaindu, Olentzerori gutuna idatzi, antzerkia, ipuinak idatzi, abestu, festak, Olentzerori eta gure familiari postalak idatzi...



4. maila (Sondikako Goronda Gane Herri Ikastetxea)

Klasea apaindu, marrazkiak, merienda handiak, kartelak, Olentzerori eskutitzak idatzi, irrati-saioak, abestu, Olentzero eta opariak jarri eskolako sarreran...



5. eta 6. mailak (Larrabetzuko Herri ikastetxea)

Postalen lehiaketa, bertsoak idatzi eta bota, paperezko Olentzero eta apaingarriak, plastilinazko-jaiotza, txokolate eta bizkotxoak jan, bazkari berezia jantokian... Gainera, azken egunean jaia egiten dugu eskolan eta klase bakoitzak gauza bat prestatzen du, esaterako antzerkia eta kantak.



3. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Gabonetako postalak eta marrazkiak, Olentzerori eta Errege Magoei eskutitzak idatzi, jokoak, Gabonetako kantak abestu, antzerkia, jaiak...



4. maila (Derioko Herri Ikastetxea)

Gabonetako gauzak moztu eta marraztu, ipuinak eta postalak idatzi, Gabonetako abestiak kantatu, ikasgela apaindu eta kandelak eta izarrek eskegi, Olentzero eta jaiotza ipini eta Olentzerori eskutitzak idatzi.

Badatoz Gabonak



Urtero legez, aurten ere badatoz Gabonak eta, Gabonekin batera, Txorierriko udalek eta kultur taldeek ume, gazte nahiz nagusientzat antolatutako ekintza sorta zabala. Hurrengo orrialdeotan, ekintza sorta hori aurkituko duzu, herririk herri eta egunik egun zehaztuta, jaiotan ahalik eta ondoen pasa dezazuen. Tartean, zelan ez, protagonismo handia hartuko du Olentzerok. Beronek hamaika buruhauste sortzen dizkigu opariak aukeratzeko orduan, are gehiago euskarazkoak egitea erabakitzen dugunean. Horretan ere laguntzeko asmoa daukagu, orriotan makina bat proposamen doazkizue eta.

Sondika

Abenduak 18

Olentzero eta kuttun magikoa antzez-lana 96 unicornios taldearen eskutik. Goronda Beko polikiroldegian. 18:00etan, 4tik 12 urtera bitarteko umeentzat.

Abenduak 19

BANG antzez-lana, Oliver Productions taldearen eskutik. Jubilatuen etxean, 19:30ean

Abenduak 21

Txorierriko Gabon Abestien Musikaldia, Jon Deuna Bateatzailaren elizan. Derioko Ipar-Alde abesbatzak antolatuta. 12:30ean

Abenduak 22

Bilboko PINera irteera. 10:00etan. Buelta: 14:30ean. 3 urtetik gorako umeentzat. Prezioa: errodatuek 4 euro; familia ugari/udal txartelarekin, 3 euro; besteek 11,70 euro

Abenduak 23

Gazteizko Izotz Jauregira irteera. 16:00etan. Buelta: 21:00etan. Oinetako zenbakia 25-47 tartekoa. Prezioa: errodatuek 6 euro (+18 urte) eta 5 euro (-18 urte); familia ugari/udal txartelarekin 5 euro (+18 urte) eta 4 euro (-18 urte); besteek 14,80 euro (+18 urte) eta 13,70 (-18 urte)

Abenduak 24

Max Centerreko Camelot Parkera irteera. 10:00etan. Buelta: 14:00etan. 12 urtera arteko umeentzat. Prezioa: errodatuek 3 euro (umeak) eta 2 euro (nagusiak); familia ugari/udal txartelarekin: 2 euro; besteek 11 euro (umeak) eta 2 euro (nagusiak)
Olentzero eta Belen biziduna. 17:00etan, Udaletxean

Abenduak 26

Derioko PIN-era irteera. 11:30ean. Buelta: 13:30ean. 3 urtetik gorakoentzat. Prezioa: errodatuek 2 euro; familia ugari/udal txartelarekin: 1 euro; besteek 6,60 euro

Abenduak 27

Txiki-eguna Goronda Beko Udal Polikiroldegian eta Goronda Gane Ikastetxe Publikoan. 11:00-14:00 eta 16:00-19:30. Ume-gazteen parkea, jolasak, apainketa-lantegia, tonbola, txosna...
El garaje de los pulpos antzez-lana, Oliver Productions taldearen eskutik. Jubilatuen etxean, 19:30ean

Abenduak 29

Peter Pan musika ikuskizunara irteera. Euskalduna jauregian, 15:45ean. Buelta: 18:00etan. 5etik 12 urtera bitarteko umeentzat. Erdaraz. Prezioa: erroda-

tuek 5 euro; familia ugari/udal txartelarekin: 3 euro; besteek 23,25 euro

Abenduak 30

Zamudioko PINera irteera. 10:30ean. Buelta: 14:00etan. 3 urtetik gorako umeentzat. Prezioa: errodatuek 2 euro; familia ugari/udal txartelarekin: 1 euro; besteek 6,60 euro

Abenduak 31

Lezamako PINera irteera. 11:30ean. Buelta: 14:00etan. 3 urtetik gorako umeentzat. Prezioa: errodatuek 2 euro; familia ugari/udal txartelarekin: 1 euro; besteek 6,60 euro

Urtarrilak 2

Bilboko PINera irteera. 10:00etan. Buelta: 14:30ean. 3 urtetik gorako umeentzat. Prezioa: errodatuek 4 euro; familia ugari/udal txartelarekin: 3 euro; besteek 11,70 euro

Urtarrilak 2

20:00etan, **Umorezko bakarrizketak.** Gazteentzako antzerkia. Gaztelekun

Urtarrilak 5

Marixe musika ikuskizunera irteera. 11:15ean. Buelta: 13:30ean. 5etik 12 urtera bitarteko umeentzat. Euskaraz. Prezioa: errodatuek 5 euro; familia ugari/udal txartelarekin: 3 euro besteek 13,35euro

Larrabetzu

Abenduak 18

Larrabetzuko musika eskolaren emanaldia. Anguleri kultur etxeko aretoan, 19.30ean

Abenduak 19

Gabonetako errezeten ikastaroa. Goikoelexaldeko txokoan, 18.00-20.00

Abenduak 22

Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra ludotekan. 10.30-13.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Abenduak 23

Gabonetako kantak. Ludotekan. 10.30-13.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Zientziagunera joateko irteera. 14:30ean. Buelta: 20:30ean. 9 euro

Abenduak 24

Ipuin opari, Apika ipuin kontalarien eskutik. Eskolako gimnasioan, 11.00etan. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Gabonetako kultur hamabostaldia, Hori Baik antolatua

Abenduak 21

Liburu eta disko azoka

Abenduak 23

16:30ean, **Olentzeroren bila.** Plazatik irtengo da

Abenduak 24

18:00etan, **Olentzero kalez kale zerran**

Abenduak 25

19:00etan, **Bertso saioa,** Unai Iturriaga, Igor Elortza, Xabier Silveira eta Amets Arzallusen eskutik. Gaztetxean

Abenduak 28

Zinema, gaztetxean

Abenduak 26

Gabonetako marrazkiak ludotekan. 10.30-13.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Gaztelu puzgarriak, pilotalekuan. 17.00-19.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Txori Herri XVIII. Gabonetako Kanten Jaialdia. Andra Mari elizan, 19.30ean

Abenduak 27

Euskadiko Futbol Selekzioaren partidua ikusteko irteera. Dohainik. 19:00etan. Buelta: 23:00etan

Abenduak 29

Sukaldaritza tailerra: **Gabonetako erroskilak.** Ludotekan. 10.30-13.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Abenduak 30

Betiko jokoak. Ludotekan. 10.30-13.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Txotxongiloak, Bihar taldearen eskutik. Eskolako gimnasioan. 17.00etan. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Abenduak 29

Bilboko PINera irteera

Abenduak 30

Zinea gaztetxean

Abenduak 31

Gau Zapatista, Hori Bain

Urtarrilak 2

22:00etan, **Txuma Murugarrenen**

konzertua

Urtarrilak 4

Zapatismoaren X. urteurrenari buruzko bideo emanaldia

Urtarrilak 6

Goizean, **Larrabetzu auzoz auzo.**

Arratsaldean, **umeentzako antzerkia,** eta ostean, **txokolatada.**

Abenduak 31

Gasteizera patinatzerira irteera. 7 euro. 9:00etan. Buelta: 14:30ean

Gau Zaharreko kotiloia. Ludotekan. 10.30-13.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Urtarrilak 2

Tailerrak. Ludotekan. 10.30-13.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat


Zezentxo mekanikoa eta basquet. Pilotalekuan. 17.00-19.30. 3tik 11 urte bitarteko umeentzat

Globalizazioa antzezlan, Hortzmuga taldearen eskutik. Eskolako gimnasioan, 20.30ean. Helduentzako antzerkia

Urtarrilak 3

Futbol zelaiaren inagurazioa. 11.30ean

Partidua. Euskadiko emakumezkoen selekzioa - Athletic A emakumezkoa. 12.00etan



Lezama

Abenduan zehar

17:30-19:30, **Gabonetako tailerrak.** Martitzen, eguazten eta eguenetan, ludotekan

Abenduak 21

18:30ean, *Olentzero eta kuttun magikoa antzezlan*a, frontoian

Abenduak 22

Patinatzera irteera. 6tik 18 urte bitartekoentzat

Abenduak 23

Bolalekura irteera. 6tik 18 urte bitartekoentzat

Abenduak 24

Kalejira Olentzerorekin. Musika, dantzak, gaztainak, opariak...

Abenduak 27

15:00etan **Ehiza ibilaldia.** Gabonetako tirada herrikoa, Errekatzun

Euskadiko Futbol Selekzioaren partidua ikusteko irteera

19:30etan **"Txori-Herri" Gabon Abestien Jaialdi Korala**, Andra Mari elizan

Abenduak 29-31

11:30-13:30 eta 16:30-20:30, **PIN.** Gaztelu puzgarriak, ludoteka, ohe elastikoak, mahai jokoak... Frontoian

Abenduak 30

*Mayumana antzezlan*a ikusteko irteera. 12tik 18 urte bitartekoentzat



Derio

Abenduak 20
18:30ean, **Gimnasia erritmikoaren erakusketa**, Miragarri taldearen eskutik. Kiroldegian

Abenduak 22-23
11:00-13:00, Ludoteka. **PINera irteera**

Abenduak 24
11:00-13:00, **Ludolentzero**, txapen tailerra. Ludotekan.
11:00-14:00, **Kirol anitzetako jarduerak**. 7 urtetik gorako umeentzat. Kiroldegian
17:00etan, **Olentzero**. Udaletxean

Abenduak 26
11:30-14:00 eta 16:00-19:00, **Zirkuaren mundua PIN**. Frontoian. Puzgarriak, heldu eta txikientzat. Zirku eta mozorroen tailerra.
19:00etan, **Zirkus Mirkus** emanaldia. Frontoian
19:00etan, **Hiruko areto-futbola**. Pozgarri areto-futbol taldearen eskutik
22:00etatik aurrera, 24 orduko **Irrati Maratoia**. 108,00 FM Ilotz irratia

Abenduak 27
10:00etatik aurrera, **Graffiti erakusketa**. Eskoletako frontoiaren atzean.
12:00etan, **Bertoko Amateurrentzako Xake Opena**, Xake taldearen eskutik. Elizan
Euskadiko Futbol Selekzioaren partidua ikusteko irteera. Informazioa kiroldegian

Abenduak 28
12:00etan, **Dantza agerraldia**, Lainomendi eta eskualdeko taldeen eskutik. Kiroldegian
18:00etan, **Dantza omenaldia eta Jai Nagusia**. Nagusien etxean

Abenduak 29-30
11:00-13:00. Ludoteka. **Zinemara irteera**

Abenduak 31
11:00-13:00, **Jaietako ludo-makillajea**. Ludotekan
11:00-14:00, **Kirol anitzetako jarduerak**. 7 urtetik gorako umeentzat. Kiroldegian

Urtarrilak 2
11:00-13:00, Ludoteka. **Patinatzera irteera**

Urtarrilak 3
12:00etan, **Zenbait xake joko batera** Carlos Barasekin, Xake taldearen eskutik. Zahar etxean
17:00etan **Areto-futbolaren erakustaldia**. Pozgarri taldearen eskutik
19:30ean, **Gabonetako kantaldia**, Ipar Alde abesbatzaren eskutik. Elizan

Urtarrilak 4
12:30ean, **Gabonetako kantaldia**, Ipar Alde abesbatzaren eskutik. Elizan
19:00etan, **Mayuma antzezlanak irteera**. Arriaga antzokian

Urtarrilak 5
18:00etan, **Erregeen kabalgata**. Elizan

Urtarrilak 9
19:30ean, **La diosa Mari hitzaldia**, Toti Martinez de Lezea idazlearekin. Txoria elkartearen eskutik. Kultur aretoan

Urtarrilak 10
19:00etan, **Motin de Brujas antzezlanak**, Sutondoan elkartearen eskutik. Institutuan

Urtarrilak 11
16:30ean, **Ipuin kontalaria: Euskal mitologia**. Txoria elkartearen eskutik. Kultur aretoan

18:00etan, **Motin de Brujas antzezlanak** Sutondoan elkartearen eskutik. Institutuan

Urtarrilak 13
17:00etan, **Munduan aberastasunaren banaketa hitzaldia**. Behar-Bidasoa GK Eren eskutik. DBHko lekuan

Urtarrilak 15
11:00etan, **Munduan aberastasunaren banaketa hitzaldia**. Behar-Bidasoa GK Eren eskutik. EPA lekuan

Urtarrilak 16
19:30ean, **Hitzaldia eta musika kontzertua**, Luis Escauriarekin. Kultur aretoan

Derioko Gaztelekua

Abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra bitartean egongo da zabalik (12:00-14:00 eta 16:00-21:00). Hainbat txapelketa izango dira bertan: billarra, ping-pong-a, partxisa...

Abenduak 16-19
Gabonetako edergailuen tailerra

Abenduak 26
Donostiara irteera. Patinatzera eta kutxagunera.

Abenduak 31
Gabon Zaharreko jaietarako makillajea Mungiarako autobusa

Urtarrilak 5
Sari banaketa

Urtarrilak 6
Zinemara irteera

Loiu

Abenduak 20

19:30ean, XVII. Txori Herri Gabon
Kanten emanaldia. San Pedro elizan

Abenduak 22

18:00etan, *Ipuin magikoak*. Bihar txo-
txongilo taldearekin. Gimnasioan

Abenduak 23

17:30ean, Loiuko Udala Gabonetako
posta txartelen X. lehiaketaren sari bana-
keta. Kultur aretoan. Ondoren, Ipuin konta-
keta La Pikota taldearekin, gimnasioan

Abenduak 23-30

Gabonetako posta-txartelen erakus-
keta, Kultur etxean

Abenduak 24, Olentzero

17:00etan, Olentzerok ferialekutik
frontoira bitarteko ibilbidea egingo du

17:30ean, Gabon kantak, Loiuko
Euskal Kultur Elkarte dantza taldearen eki-
taldia eta opariak. Frontoian

Abenduak 26

18:00etan, *Txotxongiloak: Bertsotas*,
Behi bi's taldearekin. Frontoian

Abenduak 27

Euskadiko Futbol Selekzioaren parti-
dua ikusteko irteera. Sarrerak eskuratze-
ko: abenduaren 22an eta 23an,
9:00-14:00

Abenduak 29

Peter Pan musikala ikusteko irteera.
Euskalduna jauregian
-Larrondotik irteera: 15:00etan.



-Zabaloetxetik irteera: 15:15etan.

-Emanaldia: 16:00etan.

Loiun erroldatuentzako prezioa: 6
euro. Besteentzako: 10 euro. Izena eman
eta ordaintzeko epea: abenduaren 15tik
19ra. Loiun erroldatuek lehentasuna izan-
go dute.

Abenduak 30

Goizez: Bilboko erakusketa azokako
PINera irteera

-Larrondotik irteera: 9,45ean.

-Zabaloetxetik irteera: 10,00etan.

-Bilbotik Loiura: 13,45ean.

Loiun erroldatuentzako prezioa: 3
euro. Besteentzako: 6 euro. Izena eman
eta ordaintzeko epea: abenduaren 15tik
19ra. Loiun erroldatuek lehentasuna izan-
go dute.

go dute.

Arratsaldez: Euskararen eguna.
Frontoian

17:00etan, **Mozorroen tailerra**

19:00etan, **Adur pailazo taldearen**
emanaldia: Kuko, Truko eta Bolewaider

Urtarr ilak 2

Bilboko Itsas Adarra itsas museora
irteera

-Larrondotik irteera: 16,00etan.

-Zabaloetxetik irteera: 16,15ean.

-Gidatutako ikustaldia: 17,00etan.

Loiun erroldatuentzako prezioa: 5
euro. Besteentzako: 10 euro. Izena eman
eta ordaintzeko epea: abenduaren 15etik
19ra. Loiun erroldatuek lehentasuna izan-
go dute.

Zamudio

Abenduak 24, Olentzero eguneko egitaraua

10:00etan, **Ekitaldia** dorrean

13:30ean, **Bazkaria** dorrean

15:30ean, **Olentzero bila** joatea

18:30ean, Olentzerok **opariak** banatu-ko ditu Zamudioko eskolan

Abenduak 26

19:30ean, *Como Dios* filma, dorrean

Abenduak 26-30

10:30-13:30 eta 16:00-19:30, Zamudioko **PIN**, kiroldegian: puzgarriak, jokoak, tailerrak, ludoteka eta ikuskizunak

Abenduak 31

00:01etan, **Gabon Zaharreko kotoia**, kiroldegian. DJak, zuzeneko musika

Urtarrilak 3

10:00etan, **Bilboko PINera** irteera. 6 urtetik 9 urte bitartekoentzat. Irteera, UDA geroalekuan. 3 euro

Urtarrilak 4

15:00etan, **Zinemara** irteera. Irteera, UDA geroalekuan. 3 euro

Urtarrilak 5

10:00etan, **Bilboko PINera** irteera. 10etik 13 urte bitartekoentzat. Irteera, UDA geroalekuan. 3 euro




Gabonetan ere euskaraz oparitu

Gehienok izango duzue pentsatuta zer opari familiari Gabonetan. Hala ere, ziur asko baten bati lan honek buruhauste bat baino gehiago ekarriko diona.

Hurrengo orrialdeotan hainbat proposamen egiten dizkizuegu, izan ere, euskaraz oparitzeko aukera zabala daukagu Gabonetan ere bai: liburuak, diskoak, mahai-jokoak... Informazio gehiago nahi izanez gero <http://www.euskaraz.net/Hezkuntza/Katalogoa> web orrialdea kontsulta dezakezue.

M U S I K A



Txiirri, Mirri
eta Txiribiton:
Altxa porru!
Elkar 8,5 euro



Takolo, Pirritx
eta Porrotx
Katxinorretail!
Mastxinaketa
15 euro



Betizu
Muu...sutsuak!
EITB
10 euro



Fermin
Muguruza
In-Komunikazioa
Metak
18 euro



Axular DJ
Oihuka
15 euro


F I L M A K



Heidi
EITB
12 euro



Betizu
EITB
12 euro



Haizearen nomadak
Planeta
VHS 14,95 euro
DVD 24 euro



Olentzero
EITB
12 euro



Hirukiak
EITB
10 euro

L I B U R U A K



SPPrako tranbia
Unai Elorriaga
Elkar
11 euro



Eraztunen
Jauna
JRR Tolkien
Txalaparta
20 euro



Galtzerdi
suizida
Mariasun Landa
Elkar
12,50 euro

I N F O R M A T I K A



Harluxet
Hiztegi
entziklopedikoa
Harluxet 64,50 euro



TTantto
Ikastolen Elkarteak
30,05 euro



Piratekin hizkuntzaren munduan
Elhuyar
27,50 euro



Euskal Herria mundiala!
IDCE
35,95 euro



Jai-Alai
Gipuzkoako Foru Aldundia
18 euro

J O K O A K



Euskopolis
Ikastolen Elkarteak
18,50 euro



Euskal Inauteriak
Ikastolen Elkarteak
10,30 euro



Lauburua
Komunikazio biziagoa
35 euro



Zer ordu da?
Ikastolen Elkarteak
15,60 euro

Baduzu aukerarik euskaraz

Ekidazu: garai bateko berba debekatua

"Ekidazuko argiaren argitan eta ilunaren ilunetan bizi naiz ni, izadiaren erloju huts-ezinaren argitan eta ilunetan.....", holango esaldi baten dau bere jaiotza Lezamako Ekidazu Abesbatzak. Mikel Zaratek inoiz ez eban pentsauko bere lur maitea izendatzeko erabili eban hitza gaur egun euskera leku guztietara eroateko erabiliko zanik. Baina holan izan da.



2000. urtean lau edo bost pertsona batu ziran Lezaman eta pentsau eben abesbatza bat sortu behar zala. Baina denbora aurrera joan ahala pentsau eben legalizatu behar zala eta holan egin zan pasa dan urtean. Apurka-apurka Ekidazu handitzen hasi zan eta gaur egun 24 pertsona dira, 35 urtetik 50 urtera bitartekoak, andrazkoak eta gizonezkoak. Alberto presidenteak esan ebanez, Ekidazun sartzeko ez da derrigorrezkoa solfeoa jakitea, musikarenganako gustoa izan behar da eta bariku guztitan 19.45etik aurrera denbora izatea entseguetara joateko. Nahiz eta Ekidazuko batzuk solfeoa jakin, hilean behin zuzendari profesionala dan Antxon Lete etortzen da Ekidazu entzuten eta zeozer zuzentzeko badago, zuzentzen edo, bestela, eurekin batera musikaz kutsatutako euskeraz gozatzen.

Ekidazun gizonezkoen artean tenoreak eta bajuak dagoz eta andrazkoen artean sopranoak eta kontraaltuak, beti be danon artean, Lezaman bertan eta kanpora begira, euskara toki guztietara eroateko. Edonolako proposamenei zabalik dagoz, baina normalean euskeraz

abesten dabe, Euskal Herrian betikoak diran kantak eta lau ahotsetan abesteko idatzita dagozanak.

Ekidazu abesbatza entzuteko aukera asko daukagu. Herrian bertan, adibidez, Santa Ageda egunean, San Joan Egunean, herriko jaietan eta, jakina, gane-ganean daukaguzan gabonetan. Oraingo gabonetarako, Derioko Iparralde abesbatzarekin batera Sondikako eleizan abestuko dabe Gabon aurreko domekan, abenduaren 21ean, eguerdiko 12.30etan. Urtarrilean, bestalde, Derion izango dira Iparralde eta Gaztelumendi abesbatzekin batera.

Fernando Olabarrietak esan euskunez, euren amets nagusia bete da: euskera tresna nagusia izanda euskal folklorea zaindu eta zabaltzea, munduko gainerako kulturak ahaztu barik. Baina erronkaren bat be badaukie: Txorierritik kanpo ateratzea eta euren izena eta ahotsak gero eta txoko gehiagotatara eroatea.

"Ekidazuko sorgin-koban, aker bat dago erdian. Atso herrenak dabilta bere aurrean dantzatzen...". Mikel Zarateren hitzekin kutsaturik eta bere

"Ohore handia izango da Ekidazukoentzat Mikel Zarateren omenez datorrez urtean Lezaman egingo den omenaldian parte hartzea"

omenez datorren urtean Lezaman egingo dan omenaldian hiru egun hartu nahi dabez Ekidazukoek Lezaman abesteko. Ohore bat izango da Ekidazukoentzat omenaldi horretan parte hartzaile zuzenak izatea eta entzuleentzat ohore bat euren ahotsetan barrena murgiltzea.

*Testua: Arantzazu Mendiguren
Argazkia: Ekidazu abesbatza*

Dringilin dron...

*Dringilin dron,
gaur Gabon
Sabela beteta
daukat eta
besteak hor konpon!*

Lapiko bete aza egosi, orri zuri ta gorriak

Berehala iruntsi neutsazan azkenengo-ko orriak.

Hiru hortzeko tresnatxo batez, morokil hori bailitzan,
ezti lapiko handiko bati barrua huts-huts e(g)in neutsan.

Abesti honetan agertzen jakun aza egosia dogu Gabon gaueko lehen jakia, "origo-azak".

Aspaldiko Gabon inguruko menua hau izaten zan: koliflora, makailoa pil-pilean, oiloskoa, karakolak eta, gero-ago, bisigua, Postrea hau izaten zan: Gabon madarien almimerea, ardo baltzean egosiak, kamaran sikatutako iko eta mahats pasak; txapa ganean



astiro-astiro egindako arroz-esnea eta intxaur- saltsak.

Guztiak dastatu aurretik badago familia batzuetan gorde dan ohitura:

Mahaian jesarrita, bedeinkatzeko orduan, ogia zatitu barik hartzen da. Ogian kutxiloaz kurtze bat egin, mosu eman, kurruskua txikertu, eta mantelaren azpian gorde egiten da.

Hurrengo egunean, mahaiko kajoian sartu eta aurreko urteko kurruskua ateraten da.

Ogi hau lumindu barik agertzen da eta amorrutuakandik zaintzen dauen lez, txakurrentzat izaten da.

Errito honen ostean, eleizak agindutako bijiliagaz zerikusi handia dauen janari "errepasua" emateko ordua izaten da.

Natibete eguna, hiru meza entzuteko eguna izaten zan. Egun honetako baraua, txokolate beroagaz eta parrilan tostauko ogiagaz edo bizkotxoakaz kentzen zan.

Bazkaltzeko, zopa, karbantzuak eta bezperako hondakinak be nahiko izaten ziran.

Gabon Zahar, Urtebarri eta Errege egunean jakiak antzekoak izaten ziran eta animazioa ugari.

Urtebarri egunean auzoetatik kantetan zan :

*"Urte barri txarri belarri,
dekonak eztekonari,
nik ez dekot
eta zuk niri,
ostantzean haginek
jausi
kixkiti kauski".*

Eta auzoetakoek zeozer emon behar, intxurrek, gaztainak, urretxak...

Errege egunean: "Apalasio sio zaldune, hiru erregen egune..." eta erregeak, zer ekarri? Naranjak, txokolate ontzak eta egun horretan "Colinetea".

Orduko denporatan dana probetxuzkoa izaten zan lez, "Colinete"-a etorren olezko moldea, txirrintola moduan erabiltzeko erakoa izanda, horra hor jolasa.

Orain "Colinete"-rik ez dago, baina balego be, gaur egun dagoen komenientzia, nor heldu leiteke postreetara? Orduan bai:

*Dringilin dron,
gaur Gabon
Sabela beteta
daukat eta
Besteak hor konpon!*

Testua eta argazkia: Amagoia Guezuraga

USB Flash Memoria

Testua: Alberto Legarreta

Gogoratuko dozuenez, orain 20 urte 5 1/4 disketeak erabilten genduzan, baina geroago 3 1/2 disketeak urten eta lehengoak apurka-apurka desagertuz joan ziran. Gaur egun, barriz, gero eta gitxiago erabilten dira 3 1/2 disketeak, CD-ROMak hartu daben indarragaitik. Ganera, orain dala gutxi USB memoria atara dabe.

Ordenadore-egileak dagoeneko diske-unitate bako ordenadoreak egiten dabiltza eta CD-ROM grabatzailea ipini arren, USB memoria indarra hartzen hasi da.

Zer da USB memoria?

Memoria mota hau ordenadoreak daukan USB portutik konektatzen da. Ordenadore unitate barriztat hartzen da, 2GB bitarteko memoria gorde leikeena. Zazpi zentimetroko luzera eta 3 zentimetroko zabalera daukaz pieza honek. Honeexek dira adibide batzuk:



Disko gogorra balitz bezala erabilten ditu datuak, eta edozein ordenadore-tara konektatu leike. Azkanengo sistema operatiboa izanez gero (XPgaz ez dago arazorik), unitate barri bezala (Plug and Play) sartzen da automatikoki. Halan eta guztiz be, Windows 98 erabilten badozu driver bat instalatu beharko dozu.

Ez dau behar kanpoko elektrizitate iturririk. Era berean, irakurri eta grabatzeko, gutxi gora behera, 5 MBpseko abiadura dauka.

Salneurriak

Hona hemen haren prezioak, gutxi gorabehera:

64 Mb	33.00 euro
128 Mb	50.00 euro
256 Mb	93.00 euro
512 Mb	165.00 euro
1Gb	440.00 euro
2Gb	848.00 euro


Denda eta memoria-egilearen arabera, salneurri honeek aldatu leitekez, baina gero eta merkeagoak izango dira.



Gabonak dirala eta, 256Mb-ena oparion bat izan leiteke ordenadore zale baten zat. Beste alde batetik, erlojuak eta MP3 entzuleak (diskman antzekoak) teknologi honetan oinarrituta dagoz, baina, nire ustez, ez dira hain opari onak, Interneten eskura dagoz eta.

Informazio gehiago, betiko lez, <http://www.google.com> web-orrian bilaketa eginez.

“Aurrera begira eszenategi demokratiko barri batera ailegatu beharko geunke”



Kontatu atxiloketaren inguruan pasatu duzun esperientzia.

Beti kontaktu handia izan dogu holako gertakizunakaz, ezagunakaitik, kazetaritza lanagaitik jarraitu behar izan dodaz atxiloketak, torturak... eta horrek bakoitzaren mentalidadean leku bat itxiten dabe, beti dozu sentsazioa bizi izan dozula.

Atxiloketan lehenengoa da psikologikoki golpe handia. Armakaz, etxe bete lagun. Egoera bortitza da. Saiatzen zara ingurua lasaitzen, eta ardura hori hartzen dozu, familia, umeak zure kargu dagozala... zeure buruaz ahaztu egiten zara, mekanismo psikologikoa da, horretaz arduratzen zaran bitartean ondo zagoz.

Ganera, aukera izan nendunean ikusteko zein zan atxiloketaren motiboa, pentsatu nendun, “Trankilo. Egunkaria-gaitik? Bihar etxean nago”.

Problema gero dator, bakarrik sentitzen zaranean. Berez ezer pasako ez baliteke bere, barrua gogorra da moduakaitik, aislatuta egotea, eta salduta egotea basati koadrila horren eskuetan. Ganera, interrogatorioak izan diran moduan gertatu ezkerro, ba gaingintzeko proba gogorra da.

Egunkaria-n ibili izanagatik jaso duzuen tratua nola baloratzen duzu?

Gaur egun daukien tresna bakarra lege antiterrorista da. Hori erabiltzen dabe, geu

Xabier Oleaga euskalgintzan eta gazte mugimenduan aritutakoa dogu Txorierrin; gero kazetari lanak Gipuzkoara eroan eban eta Punto y Hora-n, Egin-en, Egunkaria-n ibili ondoren, gaur egun Partaide ikastoletako komunikazio arduraduna da.

Dakigunez, Egunkaria-ko partaide izateagaitik, beste batzukaz batera, atxilotua izan zan eta 8 hilabete kartzelan emon ditu. Txorierriko lagunak afari omenaldia egin deutsie oraintsu.

edo beste edonor barrura sartzeko. Tratua homologatu egin dabe. Bereizketa egiten dabe euren terminologia erabilia: alde batetik, “preso terroristak” eta, bestetik, “terrorista ez diran presoak” –preso politikoak, beraz–. Beraientzat dana bardina da, denoi “jarabe” bera aplikaten jake. Bardin da komando bateko kidea izan edo euskalgintzan aritzea. Uste dot horrelako zerbait gertatu zala gugaz.

Egin jakuzan interrogatorio guztiak gauza legalei buruzkoak izan dira, paperetan dagoz, kontratuetan dagoz. Esaterako, nork proposatu ninduan Egunkaria-rako, ba, edozein enpresa periodistikotan bezala, kargua duenak, eta horretarako 7 lagun jo eta ke montajea egiten.

"Erendio Txorierri dala ez daukat dudarik, Txorierri kontzeptuaren ideologo nagusiak Erandiotik sortu dira"

Kartzelako tartea zelan ikusi duzu?

Han barruan errealtatea kontra dauka-
zu, baina esperantza alde, eta motorra
esperantza da. Gureak bezalako atxilo-
ketan inertzidunbrea zagoz, aste bi edo
hiru urte egongo zaran ez dakizu, ezin
dozu planik egin. Kuriosoa da bere gaur
eguneko euskal preso politiko gehienak ez
daukiela loturarik ekimen armatuarekin,
gure moduluko lauetatik inork bere ez.
Horrek sinbolizatzen dau euskal presoan
arteana dagoan aniztasuna, Francoren
garaian legez.

Nola ikusten duzu euskalgintza?

Euskalgintza izan da nire esparru
sozial naturala kontzientzia daukadanetik
Euskalgintzak, berez, giltzarri funtzioa
betetzen dau herri honetan. Eta gaur
egun beste paper bat bere jokatu ahal
dau. Aurrera begira ekimen bateratutako
egoera batera ailegatu beharko geunke,
Euskal Herrian gaur egun ez dagoan eta
nik inoiz ezagutu ez dodan eszenategi
demokratiko barri batera.

Bateratze horretan uste dot euskal-
gintzak kapazitate handia daukala. Beste
arlo batzutan zailagoa dago. Proba legez,
Egunkaria-ren inguruan sortu dan kon-
tzientzia bateratu hori. Egia da zerbaiten
aurkakoa izan dala eta orain zerbait alka-
rregaz egiteko batu behar garala, baina
euskalgintzak errezago dau hori. Beraiek
bere konturatu dira horretaz, eta horre-
xegaitik saiatzen dira kriminalizatzen



Abenduaren 13an afari omenaldia egin jakon Xabier Oleagari Erandion. Bertan, 150 bat lagun bildu ziren

euskeragaz lotura daukan guztia.
Gizartea bildurtu, euskalgintzara parajetu
ez daiten, horrek kalanbrea emoten
dauelako.

Gaia aldatuz, Txorierri aldaketarik ikusi duzu?

Azken urteotako harremanak azale-
koak izan dodaz, eta azaleko aldaketak
izugarriak izan dira: errepideak, indus-
tria-guneak... aldaketa handia dago
joera sozialean, baserrietan eta euska-
ra inguruan. Baina lehen Goierri
geure artean euskeraz egiten gendun
berba eta ingurua, eskola, fatxa zan.
Gaur egun, oster, seme-alabak ikasto-
lara bidaltzen dira, baina gero euren
arteana ez dodaz entzuten euskaraz
berbetan.

Euskarak sozialki atzera egin dau.
Gipuzkoatik nator, Oreretan inmigratio
handia egon arren, honegaz konparatuta
salto handia dago, eta benetan bertigo
sentitzen dot euskararen presentzia sozia-
la ikusita.

Zure herria, Erendio, Txorierri da?

Nik ez daukat dudarik. Txorierri kon-
zeptuaren ideologo nagusiak Erandiotik
sortu dira. Gaur egun beste joera soziolo-
giko bat sortzen ari da, baina historikoki
Erandio Txorierri kontzeptuagaz guztiz
lotuta egon da. Arriagatik honantza eta
harantza errealtate bi izan dira. Alderdi
eta zer guztiak euren organo ejekutibo
bikoitza izan dabe. Soziologikoki erreali-
dade bi ziran eta administratiboki bi izatea be
planteatzen gendun.

**Gauza gehiagoetaz aritu gara,
Txorierri trantsizio garaiko mugimendu
kultural eta politikoak, eliza inguruan
sortu ziren gazte taldeak, apaizen
hasierako mugimenduak, berak parte
hartu zuen AEKren hasiera, Egin eta
Egunkaria, oraingo ikastolen mugimen-
dua... baina hurrengo baterako utzi
behar.**

*Testua eta argazkiak: Belen Gana, J.A.
Mentxaka eta Oihana Astobieta*

Urkulu, Ola eta Errota baino gehiago

Gaur egun hobby bat edukitzea ez da gauza arraroa, ia derrigorra dela esango genuke. Denok daukagu geure etxeko eta kanpoko lanetik aparte gustuko dugun zerbait, eta, posible den heinean, denbora librean horretara jotzen dugu. Sabin Arana larrabetzuarrak azken urte hauetan bere herriko historia izan du aisialdirako gai, eta historia horren arrastoak desagertzeaz daudenean prest egon da izan ginenaren zati bat erakusteko.

Urriaren 21etik 28ra larrabetzuarrak geure historiaren zati bat ezagutzeko aukera paregabea izan dugu. Oraingoan Arrekikili Euskara Elkartek herriko ondarea kaleratu nahi izan du eta Sabin Aranari esker bere asmoa bete du.

Larrabetzuri buruzko hainbat agiritako informazioaren arabera, azken 700 urteetan burdinolak izan ziren gure herriko ekonomia motore.

Urkuluk tokiaren ezaugarriari zor die izena. R. M. Azkuek dioenez,ugarria labarra sartzeko erabiltzen zen tresna edo zurezko sarda da urkulua. Izena, beraz, errekak egiten zuen adar biko kako edo urkulutik dator.

Urkulu, antza denez, tokirik onena zen, Legina eta Gallartzako urak bildu eta Arteibai errekak Aretxabalgane errekarikin bat egiten den puntuan, indar hidraulikoa sano gehitzen delako, baina Galdakaorekin zituzten lurralde mugak zirela eta, ezin zuen inork erabili. Bakoitzak errekararen zatirik handiena erabili nahi zuen eta ez ziren ados jartzen. Baina Larrabetzuko Galdakaori aurea hartu zion eta gezurra badirudi ere, gauez eta bat-batean errota jarri zuten. Agirrek eta Aldapek errota gauez eta bat-batean egin



Burdinoletan erabiltzen ziren tresnak, hauspoak kasu, ikusteko aukera izan zen erakusketan

zuten, baina uriko beste talde batek beste gau batean suntsitu egin zuen. Haiek, uria- ren interesak argudiatuta, burdinola egin behar zela esaten zuten. Dirudienez, burdinola honek irabaziak baino arazo gehiago eman zituen. Burdinola 1503. urte inguruan egin bazan ere, antza denez, 1512ra arte ez zen martxan ipini.

Orain artekoak historia klasea badirudi ere, zehaztasun gehiago aurkituko duzue Arrekikilik argitaratutako Sabin Aranaren liburuan. Eskuratu nahi baduzue, Larrabetzuko estankotan dago salgai.

Urkulu, ola eta errota baino gehiago programaren barruan, euskara elkartek Urkuluko ola eta errota ingurura ibilaldia

antolatu zuen. Gainera, Sabin Aranaren eta Aingeru Zabala Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren zuzendariaren eskutik hitzaldiak antolatu ziren. Hala ere, ekintza nagusia erakusketa izan zen. Erakusketa horretan, burdinoletan erabiltzen ziren tresnak eta bertan egiten zirenak ikusteko aukera izan genuen.

Betiko moduan, Arrekikilik eskerrak eman nahi dizkie proiektu hau aurrera eramaten lagundu duten guztiei eta, bereziki, Sabin Aranari, bai gure esku utzi duen materialagatik eta bai aste labur honetan erakutsi digunagatik.

Testua eta argazkia: Arrekikili euskara elkartea

Lehiaketaren irabazleek nota jartzen diote Laiari

Hotelean asteburua pasatu ondoren, euren iritzia jakin nahi izan du Aikor! aldizkariak.



Jokin Zubieta

Egia esan, ez dut gogoratzen noiz joan ginen Laia hotelera, baina badakit neska-laguna eta biok poz-pezirik irten ginena.

Larunbatean kanpoan afaldu eta Mungiatik parranda egin ondoren, hotelera itzuli ginen lo egitera.

Ohetik altxatu bezain laster gosaldutua genuen: zukuak, frutak, fruitu lehorrak, esnea, tostadak, opilak, gazta... Denetarik zegoen eta nahi beste jan ahal izan genuen. Ondoren, zirkuituari ekin genion.

Lehenengo eta behin, jakuzzian sartu ginen, apur bat bizkortzeko, eta gero beste zerbitzuak probatu genituen. Langile guztiak oso atseginak izan ziren gurekin.

Ez ginen inoiz halako leku batean egon eta, duda barik, hau bezalako hotel batean asteburua pasatzea eskertzekoa da... Ederto gelditzen zara!



Aitziber Mandaluniz

Javi eta biok urtarrilaren 3an, ostira-lean, joan ginen Laia hotelera. SPA zirkuitua arratsaldean egin genuen. Ondo erlaxatuta, Derioko San Migeletara irten ginen. Gaueko 3ak aldera bueltatu, eta hurrengo egunean kafetegian gosaldutua genuen.

Gure logela oso handia eta txukuna zen. Gainera, denetarik geneukan bertan: telebista, musika, hidromasaje bainuontzia, diru-kutxa, bainu-bata bi...

Langile guztiek primeran tratatu eta oso ondo azaldu ziguten dena. Etxean bezala egon ginen Laia hotelean! Nota jartzekotan 10 bat emango genioke Laiari, baita langileei ere.

Gainera, gure 3. urteurrena bete genuen urrian... Eskerrik asko oparierengatik!



Aritz Larena

Neska-laguna eta biok otsailean izan ginen Laia hotelean.

SPA zirkuitua egin ondoren, afaltzera ateratu ginen larunbatean. Hurrengo egunean, gosaria ezin hobea geneukan geure zain. Denetarik zegoen! Gainera, kalitatezko produktuak ziren.

Gure ustez, egonaldiaren onena hau izan zen. SPA zirkuitua ondo dago, baina guk beste gauza bat espero genuen...

Beste alde batetik, hotelaren instalazioak ondo daude orokorrean eta oso tratatuak jaso genuen.

Ikusten duzue, primeran pasatu dute gure lagunek Laia hotel museoa. Badakizue, animatu eta parte hartu lehiaketan

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Konpota

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Kilo bat sagar edo madari
- Baso bete ur
- Baso bete arda
- 200 gramo milikota-pasa (orejoiak)
- 200 gramo okaran-pasa
- Kanela palu erdi bat
- 5 koilarakada azukera

Prestatzeko era

Zatitu sagarrak edo madariak 4 bat ataletan eta ipini kazuela baten ur, arda eta kanelagaz. 15 minutuan irikiten euki (su txikian) eta gero bota milikota-pasak eta okaran-pasak. Hau guztiau 15 bat minutuan irikiten dagoenean bota azukera eta euki beste 45 minutuan irikiten. Lar siku geratuten dala ikusten badogu, bota beste ur apur bat.



Mari Tere Onaindia

Bakailaoa pil-pil erara

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 4 bakailao-xerra
- oliba olio
- 6 berakatz atal
- Pipermin bat

Prestatzeko era:

Bakailao beretzen utzi behar da 36 orduan, gatza kentzeko (3 edo 4 aldiz aldatu behar zaio ura). Ezkatak eta hezurak kendu eta sikatu ondo. Lurrezko lapiko batean bota olio eta jarri surtan. Berakatzak xaflatan moztu eta su epelean frijitu. Gorri daudenean atera eta gorde. Lapikoa ere surtatik atera eta bertan ipini bakailao-xerrak 10 minutuan.

Bakailaoa egosteko erabili den olio apur bat jarri surtan beste lapiko batean. Olio epel dagoenean ipini bakailaoa (azalaren alde azpian). Mugitu astiro eta apurka-apurka gehitu beste lapiko batean utzitako olio, baina mugitzeari utzi barik, emultsioa loditzeko. Eginda dagoenean, berakatzak eta pipermina ipini gainean.

Baserriko oilaskoak eper saltsan

Osagaiak:

- 2 oilasko
- Kipula bat
- 6 berakatz atal (txikituta)
- 2 azenario
- Ozpina, edalontzi txiki bat koñak
- 1 k. tomate (zatituta), ezkaia (tomilloa)

Edalontzi bat olio, gatza, perretxikoak

Prestatzeko era:

Hartu oilaskoak eta atera izter eta hegoetako mamiak eta bularkiak. Lapiko batean ipiniko dira zatiok, eta haiei gehituko zaizkie kipula, berakatzak, azenarioak, ozpin-tantak, koñaka, tomateak, ezkaia, olio eta gatz pitin bat. Lapikoa leku freskoan ipini eta bertan egun bi utzi. Denbora hori pasa ondoren, lapikoa surtan jarri eta irakiten utzi. Oilaskoa bigun dagoenean, saltsa irabiatu irabiagailuz. Beste lapiko batean oilasko zatiak ipini eta gainetik bota saltsa. Beste alde batetik, perretxikoak frijitu, zatitan ebaki eta lapikora bota. Irakinaldi bat eman eta zerbitzatzeko prest dago.

Txakolinezko limonada

Osagaiak:

- 2 botila txakolin
- 20 azukre-koxkor
- Izotz xehatuta
- Gatz lodia

Prestatzeko era:

Txakolinari azukre-koxkorak bota eta jarri bonbilla edo garrafa batean, izotz xehatuta eta gatz lodiz inguratuta. Eragin likidoa loditu arte. Koilara handi batez eragin eta, izozkia zakuzko oihal batekin estalita, haizerik ez dagoen leku batean utzi garrapinatu arte. Nahi izanez gero, beste likore batzuk bota daitezke: cava, irasagar-likorea...



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Bizkaiko sukaldaritza"

J. Llona

"Manila konexioa"

J. Arretxe

"Soinujolearen semea"

B. Atxaga

"Gerlari zuria"

J. Urkixo

"Nola zuzendu andereño gaizto bat"

M. Agur Meabe

"Tximistorratzeko kukua"

A. Sotorra

"Kandinskyren tradizioa"

R. Saizarbitoria

DISKOAK

"Euskarians"

"Libre"

Berri txarrak

"Belardi"

"Transilvania express"

Orkestina

"Voz d'amor"

Cesaria Evora

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Gero eta ume eta gazte gehiago dabil pilotaren munduan. Horrelako bat bazara errez asmatuko duzu, baina besteok gai zarie frontoi hauen argazkiak dagokien herri-gaz lotzen? Kontutan hartu herri batek ez duela frontoirik.



LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

LEZAMA 3


SONDIKA 4

ERANDIO 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierri? Emaitzak: A7, B1, C3, D6, E4, F2



Antzerkia

Lezama

Euskara senzilloaren manifiesto, Bikoteatro taldearen eskutik. Urtarrilaren 9an, 19:30ean, kultur aretoan.



Oteiza eta Txillidari argazki-omenaldia. Argazki taldearen eskutik. Abenduaren 24tik aurrera, Nagusien etxean

Euskal Mitologia. Txoria kultur elkartearen eskutik. Urtarrilaren 8tik 11ra, kultur aretoan.

Ordutegia:

Barikuak, 18:00-21:30

Zapatuak, 12:00-14:00 eta 16:00-19:30

Domekak, 11:30-13:30

Zamudio

M^a Elena Maldonadoaren laminak eta koadroak. Abenduaren 10etik 25era bitartean.

Ordutegia:

Astelehenik barikura, 10:30-13:30 eta 16:30-20:00

Zapatuak, 10:00-13:30

Irteerak

Loiu

El caserio zarzuela ikusteko irteera. Otsailak 28, Arriaga antzokian.

-Larrondotik irteera: 17,15ean

-Larrakoetxetik irteera: 17,25ean

-Zabaloetxetik irteera: 17,30ean

-Emanaldia: 20,00etan

Loiun erroldatuentzako prezioa: 25euro. Besteentzako: 30euro. Prezio honen barruan daude autobusa, sarrera eta merienda.

Izena emateko: abenduaren 15tik 19ra. Loiun erroldatutakoek lehentasuna izango dute

Hitzaldiak

Sondika

Euskaldunen antzinako ilargi egutegia aurkeztuko du Josu Naberanek. Abenduak 23, 18:00etan, Zerurena jate-txean.